

## I. ERANSKINA

### \* Segurtasun eta higiene arau orokorrak ikasgela, lantegietan

#### Ebakuaziorako irteera

- Tokian tokiko segurtasun elementuak ezagutu behar dira eta larrialdietarako irteerak non dauden jakin.
- Irteerok errespetatu behar dira beti, ezelako objektuekin oztopatu gabe. Honez gain, zehatz-mehatz jakin behar da itzalgailuak, mangerak, segurtasun dutxak eta begiak garbitzeko ontziak non dauden.

#### Begien babesa

- Erne egon seinalizazio eta segurtasun fitxetan adierazitakoari, izan baitaiteke nahitaezkoa segurtasun betaurrekoak erabiltzea eta ukipen lenterik eramateko debekua. Hau zinez inportantea da.

#### Nola jantzi

- Zenbait ikasgela, lantegi eta laborategitan, nahitaez jantzi behar da mantala edo lohihartzekoa, itxita egon behar da beti eta, laborategien kasuan, ezin erabil daitezke bertatik at.
- Ezin jantzi arropa akrilikoa soldadurarako eremuan.
- Gomendagarria da zapata itxiak janztea eta ez sandaliak.
- Eskularruak erabili behar dira eskuen babesteko.
- Ile luzea bilduta eraman behar da beti.
- Ez da erabili behar eraztunik, eskumuturreko, zapi eta abarrik.
- Laborategietan ez da ukipen lenterik erabili behar, ez eta zenbait makina eta erreminta erabiltzerakoan ere, soldatzeko makinak kasu.

#### Arau higienikoak

- Ezin da jan eta edan, ikasgela, lantegi eta laborategietan. Eskuak beti garbitu behar dira tokiotatik atera baino lehen.
- Ezin erre daiteke.
- Ez garbitu hautsa aire konprimituko konpresoreaz.

#### Higiene, segurtasun eta lege arrazoiak medio:

- Ez arnastu, dastatu edo usaindu inola ere produktu kimikoak.
- Likidoen pipeteatzea. Gailu berezia erabili behar da horretarako.

#### Banakako babeserako bitartekoak

- Nahitaezkoa da laborategietan eta ikasgela eta lantegi batzuetan segurtasunerako betaurrekoak erabiltzea.

## Ikasgela eta lantegietarako segurtasun eta higiene arauak

- Zenbait eragiketa egiteko (ebakidurak, beroa, kimikoak eta abar) eskularru egokiak erabili behar dira derrigor.
- Banakako babes ekipoetarako P001G/EHU prozedurarekin bat etorrita, irakasgaiaren ardura duten sail edo pertsonak definituko dute banakako babes ekipoa nahitaez erabili behar den edo ez, egin beharreko eragiketa bakoitzean.

### Lan eremuaren baldintzak

- Garbi eta ordenatuta mantendu behar da, libururik, berokirik, poltsarik edo beharrik gabeko ekiporik gabe.
- Isuritako produktu kimikoak berehala jaso eta deuseztatu behar dira, ezarritako protokoloei jarraiki.

### Portaera

- Adeitsu izan behar da eta sen ona erabili ikasgela, lantegi, plato eta laborategietan. Ez da txantxarik egin behar, ez korrika egin, jostatu, bultzatu edo oihuka.

### Baimendu gabeko praktikak

- Ezin da inola ere irakasleak edo ikertzaile nagusiak baimendu gabeko praktikarik egin, ez eta elementu arriskutsuak martxan utzi gainbegiratu gabe.

### Ekipo eta gailuen erabilera

- Ez da halakorik erabili behar nola funtzionatzen diren ondo jakin gabe. Zalantzarik izanez gero, galdetu irakasleei edo, eremu zehatzen kasuan, teknikariari.
- Erabilitako gailuak garbi utzi behar dira eta erabiltzeko prest eta pronto. Egiaztatu momentu guztietan gailuen mantentzea nola dagoen, ekipoaren jarraibideen arabera.

### Materialaren garbiketa

- Materiala zeharo garbi eta ordenatuta utzi behar da lana amaitzerakoan.
- Garbiketa prozesu bakoitza amaitu eta berehala egin behar da (baldin eta aurkakorik esan ez bada)
- Produktuak hondakinak jasotzeko ontzietan utziko dira, zein berean.
- -Ez dira hustubidetik isuriko.

### Hondakinen ezabapena

- Hondakinak beroriek jasotzeko dauden ontzietan bota behar dira.
- -Egiaztatu behar da hondakina jasotzeko ontziaren etiketak azaldutako sailkapenarekin bat datorrela.
- Kristalezko material hautsia eta produktu kimikoak edukiontzi edo ontzietan jasoko dira, zein berean. Ez dira harraska edo pikara botako urarekin erreakzionatzen diren produktuak, suharberak edo zail biodegradatzen direnak.
- Ez bota produkturik hustubidetik.

## Ikasgela eta lantegietarako segurtasun eta higiene arauak

### Produktu kimikoen erabilera

- Kotsultatu behar da aldez aurretik prebentzioaren arloko informazioa, hala nola segurtasun datuen fitxak eta produktuen etiketek dakarten informazioa. Produktu guztiak kontu handiz erabili behar dira.
- Arriskurik handiera sua da. Ekidin behar dira, ahal den guztietan, laborategian sugar irekirik egon dadin. Suaren ordezt, lurrin edo silikona bainuak eta mantak edo plaka bero-emaileak erabiltzea gomendatzen da.
- Ekidin behar da produktu kimikoek azala uki dezaten. Ez da produkturik hartu behar etiketarik ez duen ontzitik, ez eta produktu baten ordezt beste bat erabili esperimentu batean, irakasleak aholkatu ez badu.

### Likidoen berotzea

- Ontziaren irekiera norberaren eta inguruko pertsonen aurkako noranzkoan jarri behar da.

## Ikasgela eta lantegietarako segurtasun eta higie arauak

I. eranskina

\_\_\_\_\_ ikasleak

\_\_\_\_\_ NAN zkia. duenak, irakurri, ulertu eta ados dago UPV/EHUn Arte Ederren fakultateko ikasgela eta lantegietarako segurtasun eta higie arau oinarritzkoekin, \_\_\_\_\_ irakasgaia ikasten ari delarik.